

Euzkela Estala

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKINEZ TA BIDAIZ IDAZKITYAK KIRIKINO'RI

Emakumea eta Aberria

¿Zeta ala, neskatxa?

E. A. B.-n beartzen dan neskatxak beste gauza on askotara bezela, gabez gizonetako bakarrik lagun duala ez ibiltia da. Esan bearrik ez onetan zindoak izango dirala gure kideak. Ba, badago emakuntzarantz ibillera itsusiagorik gabazko bakarrikako ori baño?

Bere burua batere maite duanak onetan kontu izango du; bere buruari orban au ezarteak bildurtuko du; onela ibiltzea besterik gabe da neskatxarentzat orban eta.

E. A. B.-kuak au ondo dakite; eta beren asmuetan gogor jarraituko duten neskatxa zetu: Zeta ala, neskatxa?

—AZARRI-ZALE

Erdel-Idazlien zintzotasunik-eza

Aurtengo udaberrian, janzkera gayetza-ko ipar-amerikar aldizkiri baten espainiar-ko irarkaldian, azterpen bat egin da, emakumea zein adin edo garaian atsegin garrina dan jakiteko. Onetazko ustea, espainiar arteko gizon ospetsuei eskatu zaizka; ertziari, elertzele, gudari, gutzirikoa; eta beren uestea gai onetan aldinkiegia argitaldu du.

Atsegin eroak lotuta danzkan banakaren batzuk izan ezik, beste geyenak, batez ere oldosti diranak, eroso aitortu dute emakume atsegin garrina urtutan etzeza da gastea igarota gero; bizibideko atsekabien bidez biotz-bera eta onbidetsu egitea dan garayan.

Oldosti abek dasatena irakurten ikusten da, emakumeagan arkitzen duten atsegingarriena ontasun eta biotz-samurtasuna dala, onoinena, bearkunen menpe buru-opolitza. Bideko gauza, benetako edertasuna igartzeko buru-argia eta nabazteko biotz samurra ditunagan.

Baña oldosti aben ueste-azaltze ontan, bidezko ez dan beste gauza bat darkigu; eta ara zerk arazi dizkietan lerro abek. Badirudi ain ueste zuzendun gizon abek, beren uesteri erantzunaz, onbiderean aldeze zindoa izango dirala, beren gogoak atsegin-garri arkitzen duan ori beren adimen argiak aldeztuko duala; baño ain da ueste-garri agitz gizonaren (eta emakumearen) izakera eze, badirudi ezezagarririk arkitzen duana dala maitegarri ipintzen alegintza dana; bere buruari aspikeri egiaz, gor-

da Andrinopolis'erako geitokija zsein poz- zik joango nintzatekian uri aundi ta osp- patsu au ikustera! baño ez dago astirik ba biar urten biar dogu beste toki batzue- tara itxasoz.

Agur amatxo, gauza ederrak eta asko dagoz Konstantinoplan, baño gure ibilkun- diari ez jaokazanak, eta auzegaitik ueste dot Bosforo errekiari ikusaldi bat egin la urtego dogula emendik.

—Gorantzjak aizkidei.

JON

OARRA.—Gaurko idazki onek atzo ur- ten biar eban, eta atzokuak gaur. Em- n egin dogun oker bat ixan da.

Miren Itziarri' i idazkiak, eta oler- kiak

“Tene”-ren liburu barrija

—Atzoko izparringian izketa batian ai- tauten eben liburu barri au, eta arduraz jakurri neban dana, ta geyenaz, a olerki ederra; gauza gitxi idatzi izango da euz- keraz ain bete-beteko ta ain sakona.

—Tira ba, batek diñoskunian be iraku- rri dala ta atsegin ixan yakoala...

—Oraiti, uts bat egin zenden bertan.

—Zein ueste? Arre, esaiskuzi, ta zuden- du a ena ba'di, zuzenduko da.

—Zuzengarria d bai. Ara, ezta beste- rik, liburu ori nuneta zenbatian salzen dan etzendubela argialdu.

—Ori baño espada laster dago zuden- du uts ori. Zenbatian salzen dan jakin guzue?

—Bai ba.

—Liburu bakotxa ar erriaian, edo lairleko bi ta bost ta bir.

—Eta nun erosi leikei.

—Leku onetetan: BBAO'n, Emeteri Verdes-Atxirika'ren libu-dendan, Euz- kadi-kalian.

—Zein kale da ori?

—Arizta'tatik urtuden da Deun Jago- ba eleziaren oste-aldian kurr-une txiki bat eginda Dendari-kalian aitzen da.

—Bakit kale ori; enekij, zan ixena aldatu dautsoela.

—Tira, katiak ixena ormpijñita len- go-lengua dauko; baño guktzuk, Euz- kadi-kalia deitzen dautsugu.

—Emendik aurrera neuk ben ori er- abiliko dot.

—Verdes-Atxirika'riena ez eñita sal- da, Bilbao'n, “Libreria Cat”-n eta “Libreria de San Jose” deritokotan ba.

—Nun geyago?

—DONOSTI' n Leizaola - Alana're- nian, eta TOLOSA' n, Eusebio Loyolan.

—Ordun erosteko olakoze lekutera jo biar.

—Ez gura ixan ezik. Idatzi ZOO- TZA'ko “Jaungoiko-Zale”-ra, amarlak “Giro Postalez” bidalduta (esaterak ta liburu ori eskatuaz, ta beriala bidako dautze liburua).

—Errietan bixi garentzat oise dne- na.

—Ondo ixango da; ziurtasun geyra- ko, erriet bat generatzia “zertifikauti- baldu dayien.

Izparrak bidai Mañari

JUAN-ETORRI.—Deun Inaki jatan Loyola'ra ixan diranak erri onek: Amantegi'tar Jon, Arteaga'tar Lue, Ozerin'tar Peli, Kapanaga'tar Kepe, Oti'tar Ezekel, Goit'tar Toribe, Bezo- la'tar Bitor, Etxanobe'tar Kepe, Agir- tar Martin, eta Agirre'tar Kandi.

Donostia'ra juan da Eizagirre'tar on.

Bilbao'tik etori i da Barrenetx'tar Gerbasi mutikua.

Zuen egun batzuk igarota Bilbao'ra da Auzate'tar Markelñe.

GEXORIK.—Alan dagoz Sagastai- z-karra'tar Kasimir eta Ahtzaga'tar Ibe. Iturrietak'kuak. Arin osatzia opa utsegu.

EZ-BIARRA.—Gur, Bizkerrin zitik errekarra jausi da Ortuoste'tar Jabba, Artzubi'ko mutikot'ua. Buruan zaurba- rin yako. Zatitxo baten berba barik gon da.

GU NOZ?—Aspaldi onetan irau- teten dogu izparringian, Bizkai'ko abat aldetatik Elorrio'ra pelegriñazituek iten dirala, gure Berrio-Otxoa'tar Balañin zoriondunaren gorabenez.

Orri ederto deritxogu, eta gu, Duran- goaldeko kristiñauok noz juango ste- gara?

Jakit, ibilli ta ibilli, gu baño aurrera- goto pelegriñuek jangoskuezala buzken- zar, eta gu itziko gaituela “arean bar- ik”; edo buzkontzik izten ba'dauskue, izango dala eskola-mutikuen kartapazi- jue baño nasaijuguen bat, edo fillarmo- nika baño tximurruguen bat.

—Ai, Elorrijoa juan gaitzeanian, zela- ko buzkontza jan biar ete-dogu!

—TXINUUELO

Lekicitio

DEUN INAKI EGUNAKO ANTZER- K JAYA.—Batekik ainbeste denpora igar- ra antzerki-jaririk ikusi barik eta beste- tik “Aima Vasca” antzerkiak daukan en- tziatiaz, zer esanik ez eguan jentia uga- ri elduko zana beraz ikustera, baño ez gnduan esango ikusi barik ainbesteagi- ri elduko zanik bertara juateko amurrua. Teun Inaki eberdi osterako amaituta ego- an zenbakidun txartelak, eta geitu biar- rian aurkitu ziran, curak.

Gabian Gora-Buru antzerkiko Areto ede- rrian ez eguan utsunerik inor sartzeko. Ja zan edertasuna! Danak egozan itxa- tan orduari; eta eldu zanian eta jaso egi- an aurreko zapija bat-batian danak ix- lu ziran, apurturik txaluakin ixill a'li zu lenengo atala amaitu zanian. Zelako utsegiña eta gogotzuna emoten esukien bertako gertaerak batez be aitaitaren Jon- en eta Periko'on esakerak zeintzuek itxi- tik azterriko eta aundierrieren nasaita- suko egikerak, zainduten eben euren aber- tzaletasuna eta goratuten geure aberri ma- itia. Antzeitu eben gustiz ederto danal- ta eta amaitu ebenian jentien txaluk ueste dot entzugo zirjala ija ija. Biar jauna antzerki onen eintzaila bizi dan lekutik be.

Antzeziarrek, izan ziran.—Zabaleta'tar Irriete, Zenikazelaya'tar Miren, Garziz- Azumendi'tar Miren, Zugadi'tar Justine, eta Kozkorrotza'tar Agurtzane emakume aldetik.

Garamendi'tar Jakinda, Kozkorrotza'tar Mikel, Saenz de Buruaga'tar Maren, O- dorika'tar Ander eta Garamendi'tar Kol- diboka gizonetuen aldetik. Neure zorior: agurririk samurrena emoten dautset gustia- ri.

Eta orain noz izango da urrengua? Ikusi doze zelako gogua dagon antzerki- jai onek ikusteko eta gogo au otzitu or- duk, ondo izango itzake ariñ-ariñ ibiltia- la ba.

MEDEXA'KO JAYAK.

—Inoz baño jai gexago eta jente gexagoq igon dau auten erri polit onetara. Txikija izan arren (56 eta inguru) erri aundiak baño obeto daki jayak anto'antze. Igandian emon eus- ten asikera Eleizkizun ederrakin. Aste- lenian euki ebezan indar neurketak (beyn- nak) eta martitzenian gizonenak, txapeldun geraturik Amotarrak eta onen urreng- bertakuaq. Deun Inaki egunian be Eleiz- kizun ederrak euki ebezan goiz da arra- tzalde, eta gabian erromeri ederra. Egus- ten goxian eta Mesa abestuaren urreng- pelotaka eder bat zan izateko baño euria- gaitik ezin jokatu izan eben, eta ordez jokatu zan bepera ostian era onetara Baltasar ta Urzelai Azkoitiko Txikijaren eta Abaskalen aurka. Pelotan ederto egin da gero txapeldun geratu ziran Txikija eta Abaska. Erri onen gorlagarritaz esa- biar dot pelotaka onetan ez egoal txindi- rik jokaturik. Ezagun dago nortzak di- ran nagusi!

Egubena goxian be egin ziran partida bi, baño onek bertakuen artian eta azkena emon eutsen jayari arratsaldeko eromeri- jagaz. Eldu zan bertara ote aundi ja- batez be lekeitiarrak. Jai eder gustiok igaro dira bake bakian. Zorijonak bertako U- lalari eta batez-be geure lagun dan endor- jari.

LAGUNAK Tolosa

EUZKEL-IZENA.—“Inaki Mirena” izen ederrak jarri dizkiote Laskibar'tar Adiran jauna zinegotzi abertzale eta bere emazte Urkioia'tar P.-ren seme jai ber- rari. Aita ama bitxiak Laskibar'tar Kega gipuzkoar aldun izana ta Urkioia'tar Gog- tañaga'tar Bedite andrea izan dira. Zori- nak.

URTEROKO BATZARRA.—Seguros Mutuos de Guipuzcoa” derizkan bazkunak urteroko batzara Tolosa'ko ydaletxean ospatu du. Gurrutaga jaunak alkate edo bezela mai buru izan zan eta batzarrari asiera eman zion. Ondoren irakurri ta ontz- artu artu ziran urteko gora-berak, suak

egindako kaltean ordan ez eman diran di- rutzak, bazkiden sariz jasotakuak, eta abar- Au gustia euzkeraz egin zan. Gero bazki- de batzuek itz egin zuten beren asmo ta jirizitako agertuz, batez ere Gorrotxateg- tar Matai jaunak. Azkenik bonba eder bit- erosteak erabaki zuten. Norañoko indarra artu duan bazkun onek erakusteko jakin bear da gaur ete ta baserrian 70 miloi peseta inguru bere gain dauzkala. Beraz goitik zabaltzen dijoa Gipuzkoa osoan eta bere entzutea gero ta geyago sendotze- Zorionak kide gustioi ta gure txalua: bere artekari dan Lopez-Mendizabal'tar Ixakari, ain txukun ta egoki aruten euz- keraz agiriak eta batzarra egin arazi di- tuta'ako.

SAN JULIAN ETA ELEIZALDEREN ALDEZ.—Emengo abertzaleak mesa bana atera arazi diegu bederik, lurrean ain kris- tian zintzo eta abertzale gartsu izan zira- naren alde. Eskaintza apala ainbeste iz- ta eta neke eramam zitazten bi gizon argi- tararak saritzeko. Jaunak betiko bizia eman ote die (G. R.) Eta guk ez ditzagula mun- du onetan beren irakaskizunak aztu.

ZUBI BERRIA.—Labaga'tik Zumardi txikiko bide gurutzera, asmoa dan beza, egingo ote dan otsa dabil. Buruan batzuen -batzuei sartuko ai zaiote erri gustiak zu- bi berriaz izango lukean onura? Oraingoan aurrera eramaten espada, aikate ta “ra- dionalista”-en zabarkeri ta gogo txar- agatik izango da. Tolosarrak jakin deza- tele zeintzuk erriaren etsaiak diran.

BERASTEIGRA.—Gaur igandez “To- losa F. C.”-ko lagunak Berasteigiruntz juatekuak dirai jai egun bat igarotzera. Gastedi aundi bilduko da, ta Berasteigir- onparantzan “koskoko” apustua, laisterke- tak, pelota, dantzariak, aureskulariak eta olako joko asko egingo dituzte. Goizian mesa nausia ere ba dute.

ERRIKO MUSIKA.—Inaki Deuna'ren jaican eusko erestaldi uts-utsa jo zuan eguerdian Zumardi txikian txalotua izan- nik. Beste askori bezela guri ere igande edo jai eguerdia dala gauza egokiena er- estaldiak jotzeko deritzaigu. Oraindño ala egin da beti ta ez det ueste batzuek nai dutelako larunbat gautera aidatuko dute- nik. Guez ez da jendea musika entzuti- tik joaten eta aitzeki aundi bat da etxetik ateratzeko. Ori egin ezkerro laister ikusi bear degu edozein gauza dantzaten.

Azpeiti

INAKI EGUNAK.—Egundo baño ote geyagokin amaitu dira. Eleizkizunak iraga- rrita bezela, Gaitze'ta Gotsai jaunak eman zuan jaupa nagusia Deun Inaki egu- nian eta txonitza erriko seme Donosti'ko Antigua'ko eleizan txamburu dagon La- peira jaunak; aspaldiko urtietan ez da et- ztun emen t'ontzi ederragorik, ain euz- kera ederrian araldatu zigun gure erriar Inaki deunak eman zuan bizitza Jaun- ren Aintza Aundienerako ta bere lagun- diaren bitartez zenbat gogo zuzentzen di- ran Zerura.

Bigarren egunez Loyola'ko eleizan Gotsai berberak eman zuan jaupa ta txonitza ederraz Aita Torrez josulauak. Gañontzeko joñasak amaitu dira, itxi- tiaz ezbearrik gabe sofian, baño ez ala ari- metan, bada tamal aundi batekin ikusi de- guo dantza zikiñia ugari Inaki Deunaren aintzarako numbai. Jaunak barka deig'u- agintari itxu batzun eruz ainbeste obei eginga; biyartik aurrera ontzat ez dute emango dantza au jaun eok berak, deb- ekatiko dute; bañan urreng- urtean berriz ere gure erriar Zaindaria goratu bear de- gunian irainduko jute berriro.

Batzokian inguruetako abertzale-asko izan ditugu; guziri gure eskerririk onenak. IDAZLE BERRIYA.—Irakorri degu gure bazkide gaste “Oñaz-Mendi” izena- gaz idatzi duana, gustiz da ikasi-nai aundi- koa eta Jel-alde gogotsua; zorionak be- rari ta jarraitu urte askuan.

AIZKOLARIK.—Pozik etorri zaizkigu Deusto'tik Keixeta eta Errekalde; ta gaur jokatu du berriz ere Keixetak emengo pla- zan bi gasten aurka.

OSATEBAKUNTZA (OPERA ZI- YUA).—Egin bear diotela-ta Donosti' n ar- kitzen da gure adizkide ta abertzale Epele- de'tar Inaki'ren emaztea. Laister osatzia opa diegu.

ERLO-MENDI Ermu

GAUR DA BIJAR EMENGO JAIJEN AZKENA.—Gaur goizeko 9 1/2-etan ta- boliofiak eta eresbatzak egingo dabe kale- guria ta 10-etan eresbatza juango da Udal- gizonekin Deun Jagoba txadonara, jaupa nausira.

Ori amaituta, asiko dira baserriarrik uri ontara etorten euren azi ederrak, arratsaldeko perirako. Jaupa amaitutakun eresbatzak jotaldi bat egingo du, ta ger- bakoitza bere etxera, daguana jaten.

Arratsaldian pelota partidu ederiak egongo dira, ta gero erromerija gabeko amaikak arte.

Bijar berriz ganau neurketak edo pro- bak euren sariejekin goiz ta arratsalde, ta onek amaitutakun pelota partidu, ta gero “tabernara” jentia tximiñak arrapa- tzera, ta onekin amaitzen dira aurtengo Deun Jagoba jaiak.

“AUTORIDADEA”-RI.—Badakizun gero Deun Inaki egunian emengo “txor- rilluak” zelan ibilli ziran, da ein zintzo- barrero be, olantze atzera begira egun bir- rik.

EMEN DAUKAGUZ TXAKURRAKI —Deun Inaki egunian esan zeikian Barta- lona aldiain gongozala. Zergaitik diñote' ueste dozeu? Ba, emengo “txorilluak” ta- le ertz gustijetan biñaka, jaunaka, gorde- ta egozan “apatxien” antzera, abertzaleen bat bakarrik arrapatzen ba'eben sekula- kuak emoteko; ta gafierra Txarrena epai- kariaren seme bat bateren bat garbitu bat ebalu esaten, “Artrañari” nor dan esatez ezpa'outsoen. Itxura ederra dok ori epai- kari baten semientzako! Obeto egingo ber- ke epaikarijak be, epaikaritzia itzi ta etxu- lotsia ipiñi. Bestelan zertekoa da El Poble Piperpote"-n “soy juez y padre de fa- milia” ipintzia? Jakin daizun be, pamelu- ko gizonak egin bar dabena da, etxin lotsia ipiñi, edo bestelan itzi daukan ar- dura orri ta ixilik egon.

ALKATIARI.—Ez al zera lotsatzen uri ontako jaijak dirala-ta or pelota to- kijan dagozan gauzekin? Zer esango da be erbestetik datozanak pelota partidu ikusten ainbeste zikinkeria ikusi daiñena ormetan? Areak esango dabena da uri on- tan ez dago la lotarik. Ta zuk egin bit- zendukeana da orrek gauzak egiten ditue- nari multa ipiñi ta ordaindu erain, ta or- duan ikasiko dabe olakorik ez egiten.

NASKALDIJA.—Uri ontatik juan dira Madrid'era iru urteko zor ez dabena ordain- tzen. Oñate'tar Bitor, ta Oñate'tar Endika-Ia ba, mutillak, azkar etorri osu- onakin. Baita Madrid'tik etorri dira gure lagunak diran Solozabal ta Izaguirre pelotarijak illa birako. Habana'tik etorri da Matxin, beste pelotari aundi bat bere sendijaren tartera. Ongi etorrijak.

IZPAR BELTZA.—Bariku arratsaldian jaijo ta bautizatu ta ordu lauren barru de- tui zion Goiko Jaunak, emengo Kantabri- a'ren semiar: Ateakaban laguntzen diog.

KIRIKINO.—Zuk lenguan esaten zen- duan bezela, Edurne da ta ez Egurne, ta azketsi nire uts-egitia.

ELORRETA

SASTRERIA - CAMISERIA

MUÑOZ

CHAQUETAS DE PUNTO

confeccionadas y a la medida

BATINES Y BATAS. SALIDAS DE SAÑO.

Ribebarrieta, 12. y Jardines, 1. Telef. 337.

Maderas de México

Sochicuahuil, balsamo, amargoso, rosali- llo, chicorapote, nogal, caboga, palo col-orado, bari, corallillo, granadillo, gatazo y otras. Precio barato para surtido de un millón de pies cuadrados. Informar al agente importador, V. Antépara. Teléfono 2556. Bilbao.

NO HAY TRAJE VIEJO

Lavándolo con el preparado KOPHELY- NA, porque lo deja como nuevo. Si tiene BRILLO, debido al uso, la Kophelyna lo quita radicalmente. Si ha de tenerlo, antes lávelo con Kophelyna; y de lo contrario, le saldrán de nuevo las manchas. Venta: especia- les droguerías. En Durango: casa de Gregorio Bastequieta, 1.50, paquete grande; 0.80, pequeño; 0.50, pastilla para quitar manchas.

MADERAS

Esperamos recibir, por vapor “Dio”, parti- da de maderas.

Ofrecemos tabla para entablaciones, vigas, pino tea, roble americano, satén, fres- no y cedro.

ACHA HERMANOS.—Teléfono 2725. Elcjabarri, 4.—BILBAO.

ACORDEONES, GUITARRAS

Bandurrias y cuerdas para las mismas. La Valenciana.—Correo, número 14

Las Perlas Japón, por su naturaleza y magnífico oriente, se confunden con las legítimas y satisfacen el gusto más exigente.

PRECIOS EXCEPCIONALES DE PROPAGANDA SIN COMPETENCIA

Collar, largo 40 centímetros, pesetas 47,50 de 50 centímetros, pesetas 56, y de 60 centímetros, pesetas 65. Pendientes, montura oro de ley, para señora, pesetas 48. Tamaño para niña, pesetas 30.

Pendientes, montura oro de ley, con un diamante, para señora, pesetas 65. Tamaño para niña, pesetas 52.


Hagan sus pedidos, enviando su importe por giro postal o cheque, al único joyero de España autorizado para la venta de las Perlas Japón (patentadas), a cualquiera de sus establecimientos: A. S-ISASIA, calle de Dato, 24, Joyería y Relojería, o Dato, 31, Platería.—VITORIA.

No tenemos representantes en España. Cada pedido va acompañado de su factura, con garantía

SERRIN ORO (marca registrada)

EL PROBLEMA PARA CONSERVAR SUS JOYAS COMO NUEVAS, resuelto, adquiriendo una caja-estuche que contiene 80 gramos de SERRIN ORO, preparado químicamente, cuya caja va acompañada de dos cepillos, fabricación especial para la limpieza de joyas, y una pastilla de jabón fabricado para este objeto.

Su importe, de pesetas 8,50, remítase al único joyero en España autorizado para la venta del SERRIN ORO, A. S-ISASIA, calle Dato, 24. VITORIA, y recibirá, libre de todo gasto, por envío, la citada caja, y un pros- pecto explicando la forma de limpieza.



SERRIN ORO

A. S. Isasia.-Vitoria.-Dato, 24